



Arartekoaren ebazpena, 2011ko abuztuaren 1ekoa. Horren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ogasun eta finantza Departamentuko Ikuskaritzaren Zuzendariordetza Nagusiko lanpostuetara atxikitako funtzionario batzuek sustatutako kexaren inguruan bideratu dugun esku-hartzea amaitzen da.

Aurrekariak

1. Diputatuen Kontseiluaren 1992ko urriaren 20ko eta azaroaren 10eko erabakien bitartez Gipuzkoako Foru Aldundiko lanpostuen lehenengo zerrenda onartu eta argitaratu zen. Lanpostuen zerrenda horrek 2.4 Eskala "Administrazio bereziko eskala, Zerbitzu berezien azpieskala, Zeregin berezien klasea, "Ogasun" espezialitatea" izeneko eratu zuen. (Aurrerantzean: 2.4 Eskala)

Jarraian, Diputatuen Kontseiluaren 1992ko azaroaren 17ko erabakiaren bitartez behin-behinean onartu zen lanpostu jakin batzuen zeregina modu eskusiboan esleituta zuten funtzionarioei erreserbatutako lanpostu zerrendak barne hartutako eskala eta azpieskaletako funtzionarioen zerrenda. "Ogasun" espezialitatearen kasuan, espezialitate berria zela kontuan hartuta, integrazioarako prozedura bat hasi zen. Hala, Diputatuen Kontseiluaren 1993ko apirilaren 20ko erabakiaren bidez "Ogasun" espezialitatea borondatez osatzen zuten funtzionarioen lehenengo zerrenda onartu zen. Aurrerago, 1993ko azaroaren 13ko foru aginduaren bitartez lanpostuetako funtzionario titular batzuk edo espezialitatearen antzeko zereginak zituzten kidego edo eskaletakoak ofizioz sartu ziren eta borondatez sartu ahal izateko epe berria ireki zen.

2. Antolamenduaren inguruko erabaki horiek, baita ondorengo beste batzuk ere (foru lanpostuen zerrendetako aldaketa berriak), zenbait auzi judizial eragin zituzten eta, hala, Auzitegi Gorenaren 2008ko urriaren 29ko ebazpena eman zen (RJ 2008\7823). Epai horretan 2.4 Eskalan sartzea, hain zuzen, lanpostuen zerrendaren barruan, baliogabetu zen zuzenbidearekin bat ez etortzeagatik.
3. Epai horren betetzean, Gipuzkoako Foru Aldundiak funtzionarioei erreserbatutako lanpostuen zerrenda aldatzen duen azaroaren 10eko 35/2009 Foru Dekretua onartu zuen.

2.4 Eskala bertan behera uzteak, Ogasun eta Finantza Departamentuari atxikitako goi eta erdi mailako teknikarien lanpostu askoren zeregina erreserbatua zuenak, bi azpieskala berri sortzea eragin zuen Administrazio bereziko eskalaren barruan, baita horietara bertan behera utzitako 2.4 Eskalari erreserbatutako lanpostuak atxikitzea ere.



2.10 (Administrazio bereziko eskala, azpieskala teknikoa, Ogasuneko goi mailako teknikariak)

2.11 (Administrazio bereziko eskala, azpieskala teknikoa, Ogasuneko erdi mailako teknikariak)

Bertan behera utzitako 2.4 Eskalako funtzionarioak 2.10 eta 2.11 Azpieskaletan sartu ziren Diputatuen Kontseiluaren 2009ko abenduaren 23ko erabakiaren bitartez.

4. Azken erabaki horren ondotik berraztertzeko zenbait errekurtsio bideratu dituzte aipatu sartzeak eragin dien zenbait funtzionarioek. Erakunde honetan ere gai horren inguruko kexa bat bideratu da.

Dagokion espedientea hasita, erakunde honen esku-hartzeak legezko gogorazpena planteatzea izan du oinarri, ebatzteke dauden ebazpenak berariaz bideratzeari dagokionez eta, hala, administrazioaren isiltasunaren praktika desegokia saihesteko. Ildo horretan behin eta berriro adierazten dugun moduan, hala jarduteak herritarrek administrazio egokirako duten aitortutako eskubidea alde batera uzten dela esan nahi du.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, erakunde honek egindako gogorazpena kontuan hartzeaz gain -alegia, erantzuteke zeuden ebazpenak ebatzen hastea-, auzi horren garapenaren gainean informazioa eman digu eta une honetan aipatu informazioak gai honetan gure esku-hartzea amaitzeko aukera ematen digu.

Gogoetak

1. Dagoeneko aipatu dugun moduan, Auzitegi Gorenaren 2008ko urriaren 29ko epaiak (RJ 2008\7823) 2.4 Eskala "Administrazio bereziko eskala, Zerbitzu berezien azpieskala, Zeregin berezien klasea, "Ogasun" espezialitatea" izenekoan sartzea, hain zuzen, lanpostuen zerrendaren barruan, baliogabetu zuen eta, ondorioz, Ogasun eta Finantza Departamentuko lanpostuen eta horietara atxikitako funtzionarioen berrantolamendu berria egin behar zen.

Kontuan hartu behar da zeregin hori egiterakoan eta, bereziki, Ikuskaritzaren Zuzendariorde Nagusia berrantolatzerakoan, Gipuzkoako Foru Aldundiak erakunde bera antolatzeke ahalmen handia duela eta, gure ustez, horren adibide batzuk daude, gainontzeko foru ogasunekin alderatuz gero.

Izan ere, Arabako Foru Aldundiak sistema irekia hautatu du eta, horren bidez, Zergak Ikuskatzeko Zerbitzuko lanpostuak Administrazio orokorraren eskaletako eta Administrazio bereziko eskaletako funtzionarioek bete ditzakete (8/2006 Foru Dekretua, Diputatuen Kontseiluarena, otsailaren 14koa, Arabako



Foru Aldundiko karrerako funtzionarioei eta behin-behineko langileei erreserbatutako lanpostuen zerrenda onartzen duena); Bizkaiko Foru Aldundian, berriz, lanpostu horiek Administrazio bereziko eskalako funtzionarioei bakarrik erreserbatzea erabaki da, hain zuzen, honako lanpostuak eskuratzeko langile kategoriarekin: ogasuneko ikuskariak, zergen ikuskariordeak (Bizkaiko Foru Aldundiaren 2008ko abenduaren 30eko erabakia).

Gipuzkoako Ogasunaren kasuan, Arabako Foru Aldundiaren eredia jarraitu eta eredu irekia hautatu edo mugatutako ereduari heldu berriz ere, Bizkaiko Foru Aldundiak ezarritakoaren antzekoa. Egoera horren ondotik ez litzateke beharrezkoa izango dagoeneko 1993. urtean borondatez edo derrigortuta sartu ziren funtzionario horiek guztiak berriz ere sartzeari buruzko 2.4 Eskalan. Izan ere, jatorrizko kidego edo lanpostuetan sartuta jarraitzen dutela uler daiteke, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak bere garaian 2004ko uztailaren 26ko autoan adierazi zuen moduan.

Hala ere, egia da orain bertan behera utzitako 2.4 Eskalan zuzenean sartu diren funtzionarioak egoteak foru ogasuna berrantolatzeke behar hori zailtzen duela.

2. Edozelan ere, egoera hori abiapuntu hartuta eta Auzitegi Gorenak 2008ko urriaren 29ko epaian planteatutako gogoetak kontuan hartuta, Gipuzkoako Foru Aldundiak bi azpieskala berri sortzea erabaki du: 2.10 (Administrazio bereziko eskala, azpieskala teknikoa, Ogasuneko goi mailako teknikariak) eta 2.11 (Administrazio bereziko eskala, azpieskala teknikoa, Ogasuneko erdi mailako teknikariak), segidan, horietan lehendik 2.4 Eskalan zeuden kideak sartu ahal izateko.

Erabaki horrekin Gipuzkoako Foru Aldundia epai horren laugarren oinarrian ezarritakoarekin bat etorri da honako hau esaterakoan: *“la interpretación que la Diputación Foral preconiza para el artículo 170.1 TRRL (RCL 1986, 1238, 2271, 3551) , viene a consistir en que la configuración que este precepto hace de la Subescala Técnica de Administración Especial estaría referida a funcionarios cuyas tareas exijan la posesión de un único y exclusivo título académico o profesional y, a causa de ello, descartaría la posibilidad de encuadrar dentro de ella a aquellos funcionarios cuyas tareas puedan corresponder alternativamente a diferentes títulos académicos o profesionales”*; termina concluyendo que *“dicha interpretación no puede ser compartida”* argumentando a continuación que *“la lectura combinada de los artículos 171 y 172 TRRL pone de manifiesto, en línea con lo defendido por el recurso de casación, que la clave diferenciadora entre la Subescala Técnica y la Subescala de Servicios Especiales radica en lo siguiente: a) que en la Subescala Técnica la posesión de una titulación académica o profesional es una necesidad inexcusable para el desempeño de las correspondientes tareas funcionariales, por constituir estas la actividad propia para la que directamente habilita el título, y bien esté referida esa necesidad a un título único y exclusivo o a varios títulos alternativos; y b) que el encuadramiento dentro de la Subescala de*



Servicios Especiales procederá cuando las tareas funcionariales exijan una aptitud específica para la que bien no baste tan sólo con poseer un título académico o profesional, o bien se pueda acreditar dicha aptitud sin necesidad de unas titulaciones específicas y tan sólo con la superación del correspondiente proceso selectivo.”

Dena den, berrantolamendu horrekin Gipuzkoako Foru Aldundiak “Ogasun” espezialitatea mantentzeko borondatea azpimarratu du.

Egia da tokiko araubidearen arloan indarrean dauden legezko xedapenen testu bategineko 171.1 artikulua onartzen duela Administrazio bereziko azpieskala teknikoko funtzionarioek, klasetan banatzeaz gain, eskatutako tituluaren izaeraren eta mailaren arabera, aldi berean, arlo eta espezialitate desberdinetan bana daitezkeela. Hori, ordea, ezin da egin arautegirik gabe.

Hala, auzi luze honetako epai batek (Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren 1997ko uztailaren 15eko epaia, Administrazio bereziko eskala, Zerbitzu berezien azpieskala, Zeregin berezien klasea, “Ogasun” espezialitatea” izenekoan lanpostuetako funtzionario titularrak edo espezialitatearen antzeko zereginak zituzten kidego edo eskaletakoak ofizioz sartzeari buruzkoa) zenbait gogoeta egiten ditu gai honen inguruan eta, gure iritziz, horiek azpimarratzeak merezi du.

Hala, epai honek, bereizi gabeko atxikitzearen printzipio orokorra ezarri ondoren, honako honetarako aukera aitortzen du: *“adscripción con carácter exclusivo a un Cuerpo o Escala de un concreto puesto de trabajo en casos excepcionales cuando tal adscripción se derive necesariamente de las funciones a desarrollar en ellos y en tal sentido se determine en las RPT”* pero se muestra rotunda al afirmar que *“lo que no permite el régimen estatutario es la posibilidad de imponer como requisito de desempeño el haber accedido a la función pública por una determinada plaza o especialidad, pues ni está así previsto en los arts. citados, contradiciendo el principio general de adscripción indistinta y hace absolutamente ineficaz la instauración del sistema de puestos de trabajo si por la introducción de un requisito de desempeño no autorizado legalmente se vuelve a equiparar nuevamente puesto de trabajo y plaza funcional, lo que ocurre en la RPT aprobada en la que se impone como requisito de desempeño de determinados puestos de trabajo la pertenencia no a un Cuerpo o Escala, sino a la Especialidad de Hacienda, lo que no impide que la Administración pueda exigir un determinado título para la provisión de un puesto de trabajo o la tenencia de otros requisitos anudados a las funciones y responsabilidades a exigir”.*

Horrela, epai horrek gogora ekartzen du kidego edo eskala jakin bateko funtzionarioei bakarrik lanpostuak atxikitzea gauza daitekeela atxikitze hori nahitaez bertan burutu beharreko zereginen izaeraren eta funtzioen ondoriozkoa denean bakarrik.





3. Ogasun eta Finantza Departamentua eta, bereziki, Ikuskaritzaren Zuzendariorde Nagusia berrantolatzeko aurrekarien inguruan Ogasuneko foru diputatuak emandako azalpenetan, arduradun horrek hauxe adierazi du:

“1993an Ogasun eta Finantza Departamentuak definitu zuen, barne hausnarketako prozesu baten ondorioz, departamentu osoari eragiten zion barne antolaketako eredu bat, bi printzipiotan oinarrituta:

- 1.- Sustatzea departamentuko edozein lanpostura aldatzeko barne mugikortasuna; horregatik, 'ogasuneko teknikaria' figura bultzatu ten eta ez, ordea, 'kudeaketako teknikaria', 'zergabilketako teknikaria' edo 'ikuskaritzako teknikaria' figurak.*
- 2.- Eredu haren helburuak ziren, batetik, prestakuntza homogeneoa ziurtatzea, bestetik, departamentuko teknikari guztientzako lan eskaintzen deialdiak eratzea eta, azkenik, saihestea norbait lehiaketa bidez sartzea Aldundiko beste departamentu batzuetako teknikari lanpostuetatik, horietan sartzeko hasierako baldintzak Ogasunean jarri ohi direnak baino exijentzia txikiagokoak izanik.*

Asmo horrekin, 2.4 espezialitatea sortu zen, eta departamentuko goi eta erdi mailako teknikari lanpostu guztiak hartara bildu ziren.”

Gogoeta hauen hasieran aipatu dugun moduan, halako gaiak jorratzerakoan nahitaezkoa da administrazio orok antolatzeke daukan ahalmen garrantzitsu diskrezionala kontuan hartzea. Horregatik, batzuek adierazi bezala: *“no puede convertirse en arbitrariedad o irrazonabilidad, convirtiéndose la eficacia y servicio al bien común que debe regir la actuación de la Administración en desnuda manifestación de poder carente de toda justificación”.*

Berrantolamendu horrek oinarri izan dituen eta aintzat hartu dituen printzipioak eta xedeak barne hartzen dituen azalpen horien irakurketaren ondotik adierazten dugu xede horietako batzuk beste neurri batzuen bitartez lortu ahal zirela, adibidez, bereizi gabeko atxikitzea edo lanpostuen sailkapen irekia eta lanpostuak betetzeko kasuan kasuko deialdietan proba praktikoak eginez. Bi neurri horiek, mugikortasuna laguntzeaz gain, aldi berean foru ogasuneko lanpostuak bete nahi dituzten funtzionario interesdunen behar bezalako trebakuntza bermatzeko aukera ematen dute.

Horrez gain, deigarria iruditu zaigu azalpen horiek alde batera utzi dutela Ikuskaritzaren Zuzendariorde Nagusiko lanpostuen eta agian horretarako beharrezkoak izan daitezkeen neurrien espezialitate funtzional posiblea kontuan hartzea (lanpostuak betetzeko kasuan kasuko deialdietan proba praktikoak egitea ezarri) eta berriro ere mugikortasun handiagoa bideratzeko proposamena azpimarratu dutela.





Hala ere, aurreko hori baino harago, bene-benetan kezkatzen gaituen kontua da azalpen horietan lanpostu horiek "Ogasun" espezialitateko langileei bakarrik erreserbatzeko beharraren justifikazioa egitea saihestu dela, hain zuzen, aipatu jurisprudentzia eskatzen ari den moduan, alegia: bertan egin beharreko zereginen izaera kontuan hartuta, LEP homogeneoak konfiguratzeko beharraren deklaraziora bakarrik mugatuta, ordea.

Horregatik guztiagatik eta, labur esanda, erakunde honen ustez, egoera hau aztertzearen ondotik honako ondorioak atera ditugu:

Ondorioak

1. Auzitegi Gorenaren 2008ko urriaren 29ko epaiak (RJ 2008\7823) 2.4 "Administrazio bereziko eskala, Zerbitzu berezien azpieskala, Zeregin berezien klasea, "Ogasun" espezialitatea" izeneko lanpostuen zerrendaren barruan sartzea baliogabetu zuen eta, ondorioz, Ogasun eta Finantza Departamentuko lanpostuen eta horietara atxikitako funtzionarioen berrantolamendu berria egin behar zen.
2. Gipuzkoako Foru Aldundiak hartutako erabakia (35/2009 Foru Dekretua, azaroaren 10ekoa) bat dator Auzitegi Gorenaren epai horretan egindako gogoetekin, aurreko sailkapena berriro bideratzen baitu eta azpieskala teknikoaren barruan bi azpieskala berri sortzen baititu: 2.10 (Administrazio bereziko eskala, azpieskala teknikoa, Ogasuneko goi mailako teknikariak) eta 2.11 (Administrazio Bereziko eskala, azpieskala teknikoa, Ogasuneko erdi mailako teknikariak).
3. Hala ere, erabaki horrek "Ogasun" espezialitatea mantentzen du eta foru aldundiak ez du behar adina funtsatu atxikitze eskusibo hori nahitaez Ogasun eta Finantza Departamentuko lanpostuetan egin beharreko izaeraren eta funtzioaren ondoriozkoa dela.
4. Bertan behera utzitako 2.4 Eskalako funtzionarioak 2.10 eta 2.11 Azpieskala berrietan sartzeko erabakiak (Diputatuen Kontseiluaren 2009ko abenduaren 23ko erabakia) Ikuskaritzaren Zuzendariordetza Nagusian zerbitzuak ematen dituzten funtzionarioen sartzeko eztabaidagarria dauka hizpide, kontuan hartuta zeregin funtzionalen espezializazioaren aintzatespen oro saihesten duela.

